

Desgaituen zaintza: **GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA**

Dep. eta €

GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA 03

**2012: 323.215.978 EURO
2013: 318.020.776 EURO**

Izena: Desgaituen zaintza
Kodea: 10
Generoaren garrantzia: Handia
Aurrekontua: 47.955.025

1. taula. Programaren aurrekontua eta azken urteotako portzentajea Departamentuarentzat

	2011	2012	2013	12/11	13/12
GASTUAK EUROTAN	42.138.264	47.517.249	47.955.025	%12,8	%0,9
DPTUAREN AURREKONTUAREN GAINEKO PORTZENTAJEA	%11,8	%14,7	%15,1	%7,2	%0,4

Programa eta €

Programa honek Departamentuaren aurrekontuaren % 14,8 hartzen du, eta horrek garbi erakusten du desgaituentzako zerbitzuek duten garrantzia foru politikaren barruan. Gainera, 2012an, hazi egin da bere pisu erlatiboa.

2. taula. Aurrekontu programan sartutako jarduera nagusiak eta aurrekontuan jasotako gastua.

	2012		2013	
Uliazpi Fundazioa	14.488.352	% 30,5	14.098.509	%29,4
Desgaitasun hitzarmenak	26.155.871	% 55,0	27.162.722	%56,6
Eguneko zentroak buru-gaixoentzat	991.164	% 2,1	1.003.022	%2,1
Beste batzuk	5.881.862	% 12,4	5.690.772	%11,9
Guztira	47.517.249		47.955.025	

Gastuaren zatirik handiena, batetik, pertsona desgaituentzako eta, bestetik, buru-gaixoentzako egoitzen eta eguneko zentroen sare propioari eta hitzartutakoari zuzentzen zaio. Ondoren, laguntza premia zabalak dituzten pertsonentzako arreta sarea dago, Uliazpi Fundazioak kudeatutakoa.

Helburuak, hartzaileak eta programak dituen jarduerak

Aurrekontu programa honetan desgaituen eta buru-gaixoen arloan Departamentuak dituen jarduera ildo nagusiak jasotzen dira, alde batera utzita aldizkako prestazio ekonomikoak eta inbertsioak.

Helburu nagusia da pertsona desgaituek ohiko ingurunean (etxea, familia) baldintza egokian jarraitzeko behar dituzten laguntzak ematea, eta ohiko ingurunetik aldatu behar denean arreta integraleko zerbitzuak bermatzea.

Hartzaileak: Desgaituak eta beren familiak.

Programak ondorengo jardueren finantzazioa jasotzen du:

A) Bizikidetzako aukerei dagokienez, programa honek finantzatzen du laguntza premia

diferenteak dituzten desgaituentzako edota buru-gaixoentzako egoitza plazen eta plaza soziosanitarioen foru sarea.

- Egoitzen programa

B) Ohiko ingurunean jarraitzeko laguntzei dagokienez, besteak beste:

- Eguneko zentroyen sarea

Bukatzeko, hemen kokatzen da baita ere desgaitasunaren eta mendekotasunaren balorazioa. Balorazioa funtsezkoa da Departamentuak kudeatzen dituen prestazioak eta gizarte zerbitzuak eskuratu ahal izateko, indarrean dagoen legedia betez.

3. taula. Zerbitzu nagusietan 2011. urtean arreta jaso dutenak:

	GUZTIRA	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Egoitzak. Desgaitasuna	746	% 58	% 42
Egoitzak. Buruko gaixotasuna	135	% 68	% 32
Eguneko zentroak. Desgaitasuna	581	% 58	% 42
Eguneko zentroa. Buruko gaixotasuna	193	% 66	% 34
GUZTIRA	1.655	959	696

Ikus daitekeenez, gizonezko gehiago daude, prestazio ekonomikoak kontuan hartu gabe. Beste programa batzuetan zaila da artatutako pertsonen sexua zehaztea, datuak falta direlako.

4. taula. Zerbitzu nagusien estaldura 2011n (arreta jaso duten pertsonak 100 biztanleko)

712.534 biztanle	Guzt.	G	E
Egoitzak. Desgaitasuna	0,10	0,06	0,04
Egoitzak. Buruko gaixotasuna	0,02	0,01	0,01
Eguneko zentroak. Desgaitasuna	0,08	0,05	0,03
Eguneko zentroa. Buruko gaixotasuna	0,03	0,02	0,01
GUZTIRA	0,23	0,14	0,09

Ikus daitekeenez, estaldura handiagoa da gizonezkoetan.

Azterketak erakusten du gizonezkoek ordezkapen handiagoa dutel pertsona desgaituentzako arreta zerbitzu guztietan.

Ikerketa guztiek agerian uzten dute emakumeek gizonezkoek baino urte gehiago dituztenean erabiltzen dituztela horrelako zerbitzuak. Arrazoi kulturalak direla eta, emakumeek luzarago mantentzen dute bere autonomia (edo autonomia pertzepzioa). Era berean, familiak gehiago behartzen ditu gizonezkoak euren etorkizunari buruzko erabakiak hartzera.

Bestalde, azpimarratu behar da gizarte zerbitzuen "feminizazioa" are nabarmenagoa dela zerbitzuetan lan egiten duten emakumeen portzentajeari erreparatzen badiogu.

Azterketa kuantitatiboa generoaren arabera

Azterketa edo hausnarketa kualitatiboa

Adinekoen zaintza: **GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA**

Dep. eta €

GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA 03 **2012: 323.215.978 EURO**
2013: 318.020.776 EUROS

Izena: Adinekoen zaintza:
 Kodea: 11
 Generoaren garrantzia: Handia
 Aurrekontua: 127.081.399

1. taula. Programaren aurrekontua eta azken urteotako portzentajea Departamentuarentzat

	2011	2012	2013	12/11	13/12
GASTUAK EUROTAN	124.963.212	128.828.818	127.081.399	3,1%	-1,3%
DPTUAREN AURREKONTUAREN GAINEKO PORTZENTAJEA	31,7 %	39,9 %	40,0%	8,2%	0,1%

Programa eta €

Programa honek, berez, Departamentuaren aurrekontuaren % 40 hartzen du, eta horrek garbi erakusten du adinekoentzako zerbitzuak ardatz direla foru politikaren barruan. Gainera, 2012an, hazi egin da bere pisu erlatiboa.

Tabla 2. 2. taula. Aurrekontu programan sartutako jarduera nagusiak eta aurrekontuan jasotako gastua

	2012		2013	
Egoitzak	86.822.241	68,09%	85.205.057	67,0%
Etxeko laguntza (mendekoak)	14.862.490	11,66%	14.862.490	11,7%
Eguneko zentroak	18.428.414	14,45%	19.931.614	15,7%
ETXETEK	808.318	0,63%	1.484.990	1,2%
Sendian	1.311.027	1,03%	1.920.369	1,5%
Beste batzuk	5.282.863	4,14%	3.676.879	2,9%
Guztira	127.515.353		127.081.399	

Gastuaren zatirik handiena adinekoentzako egoitzen sare propioari eta hitzartutakoari zuzentzen zaio. Ondoren, eguneko zentroen sarea eta mendekoentzako udaleko etxeko laguntza zerbitzuaren foru finantzazioa daude.

Helburuak, hartzaileak eta programak dituen jarduerak

Aurrekontu programa honetan adineko mendekoen arloan Departamentuak dituen jarduera ildo nagusiak jasotzen dira, alde batera utzita aldizkako prestazio ekonomikoak eta inbertsioak. Departamentuan aurrekontu handiena duen programa da.

Helburu nagusia da adineko mendekoek ohiko ingurunean (etxea, familia) baldintza egokian jarraitzeko behar dituzten laguntzak ematea, eta ohiko ingurunetik aldatu behar denean arreta integraleko zerbitzuak bermatzea.

Hartzaileak: Adineko mendekoak eta beren familiak. Gipuzkoan graduren bateko mendekotasun maila duten adinekoak 21.000 dira.¹

Programak ondorengo jardueren finantzazioa jasotzen du:

A) Bizikidetzako aukerei dagokienez, programa honek finantzatzen du adineko mendekoentzako egoitza plaza eta plaza soziosanitarioen foru sarea.

- Egoitzen programa

B) Ohiko ingurunean jarraitzeko laguntzei dagokienez, besteak beste:

- Mendekoei eskainitako udaleko etxeko laguntza zerbitzua finantzatzea.
- Eguneko zentroen sarea.
- ETXETEK programa, laguntzako produktuak eta etxeko erreformetarako laguntzak jasotzeko orientazioa.
- Familia zaintzaileei laguntzeko Sendian programa.

Bukatzeko, hemen kokatzen da baita ere desgaitasunaren eta mendekotasunaren balorazioa. Balorazioa funtsezkoa da Departamentuak kudeatzen dituen prestazioak eta gizarte zerbitzuak eskuratu ahal izateko, indarrean dagoen legedia betez.

3. taula. Zerbitzu nagusietan 2011. urtean arreta jaso dutenak:

	GUZTIRA	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Adineko mendekoak guztira	21.000	7.080	12.920
Egoitzak	5.800	% 31,8	% 68,2
Etxeko laguntza (mendekoak)	3.810	% 25,8	% 74,2
Eguneko zentroak	1.946	% 26,4	% 73,6
ETXETEK	1.789	% 41,1	% 58,9
Sendian	1.508	% 32,1	% 67,9
Beste programa batzuk	3.297	% 38	% 62
Arreta jaso dutenak	14.853	4.594	10.259
ZERBITZUEN BIDEZ LORTUTAKO ERAGINKORTASUNAREN PORTZENTAJE GORDINA	% 74,3	% 64,9	% 79,4

Ikus daitekeenez, emakumezko gehiago daude zerbitzu publikoko estalduraren bat jasotzen dutenak, prestazio ekonomikoak kontuan hartu gabe. Nolanahi ere, kopuru horiek tentuz erabili behar dira, elkarren artean bateragarriak diren zerbitzuak baitaude, eta zerbitzu bat baino gehiago jasotzen duten pertsonak egon daitezke. Departamentuaren ustez, zuzendu ondoren eraginkortasuna honelakoa izango litzateke: guztizkoarentzat % 57, gizonezkoentzat % 50 eta emakumezkoentzat % 61.

Azterketa
kuantitatiboa
generoaren
arabera

¹ Eusko Jaurlaritzak, 2011ko uztailean egindako EAEko gizarte zerbitzuen maparen zirriborroa agirian zenbatetsitako datuak.

4. taula. Zerbitzu nagusien estaldura 2011n
(arreta jaso duten pertsonak 65 urtetik gorako eta 75 urtetik gorako 100 biztanleko)

	65 eta +			75 eta +		
	Guz	G	E	Guz	G	E
Egoitzak	4,2	3,2	4,9	8,1	5,0	6,6
Etxeko laguntza (mendekoak)	2,8	1,7	3,5	5,3	3,7	6,3
Eguneko zentroak	1,4	0,9	1,8	2,7	1,3	2,3
Etxetek	1,3	1,3	1,3	2,5	2,8	2,4
Sendian	1,1	0,8	1,3	2,1	1,8	2,3

Ikus daitekeenez, estaldura nabarmen igotzen da adinak gora egin ahala, eta ia bikoiztu egiten da 75 urtetik gora.

5. taula. Egoitzetan arreta jaso duten pertsonen banaketa ehunekotan
2011. urtean, mendekotasun graduaren eta generoaren arabera
(zenbat eta gradu handiagoa, mendekotasun handiagoa)

	GUZTIRA	Gizonezkoak	Emakumezkoak
	%	%	%
0 gradua	3	8	3
1 gradua	12	16	8
2 gradua	31	31	26
3 gradua	54	45	63
Guztira	100	100	100

Ikus daitekeenez, emakumezkoen proportzio handiagoa dago mendekotasun gradu handiengan eta kontrakoa gertatzen da gradu txikiengan.

Azterketa edo hausnarketa kualitatiboa

Azterketak erakusten du emakumezkoek ordezkapen handiagoa dutela gizonezkoen aldean, adineko mendekoentzako arreta zerbitzu guztietan. Arrazoi sinplea da: emakumezkoak urte gehiago bizi direnez, adinean aurrera egin ahala, piramide demografikoa desorekatu egiten da. Eta zenbat eta urte gehiago, orduan eta desoreka handiagoa eta mendekotasun handiagoa. Kontuan hartzen badugu zerbitzu horiek erabili "ohi" dituzten pertsonen 80 urte edo gehiago dituztela, diferentziala logikoa da. Zentzu horretan, interesgarria litzateke azterketa bat egitea gure zerbitzuen eragina bereiztuz bi adin tarte diferentetan: 65-75 eta 76tik gora.

Ikerketa guztiek agerian uzten dute emakumeek gizonezkoek baino urte gehiago dituztenean erabiltzen dituztela horrelako zerbitzuak. Arrazoi kulturalak eta beste arrazoi batzuk direla eta, emakumeek luzaroagoan mantentzen dute bere autonomia. Bizitza-luzerako diferentziarik ez balego eta emakumezkoek gizonezkoen bizi itxaropena izango balute, generoaren arabera erabiltzaileen proportzioa orekatu egingo litzateke edo murriztu egingo litzateke emakumezkoen kasuan.

Bestalde, azpimarratu behar da gizarte zerbitzuen "feminizazioa" are nabarmenagoa dela zerbitzuetan lan egiten duten emakumeen portzentajeari erreparatzen badiogu. Gipuzkoan portzentaje hori % 67koa da zerbitzu guztietarako eta % 75koa adineko mendekoentzako zerbitzuetarako.

Inbertsioetarako eta Gizarte Lankidetzarako Plana: **GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA**

Dep. eta €

GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA 03 **2012: 323.215.978 EURO**
2013: 318.020.776 EURO

Izena: Inbertsioetarako eta gizarte lankidetzarako plana.
 Kodea: 21
 Generoaren garrantzia: Handia
 Aurrekontua: 8.158.631

1. taula. Programaren aurrekontua eta azken urteotako portzentajea Departamentuarentzat

	2011	2012	2013	12/11	13/12
GASTUAK EUROTAN	24.530.713	10.638.121	8.158.63	% -56,6	%-23,51
DPTUAREN AURREKONTUAREN GAINEKO PORTZENTAJEA	% 7,4	% 3,3	%2,6	% -4,1	%-0,7

Programa eta €

Programa honek Departamentuaren aurrekontuaren % 3,3 bakarrik hartzen du. Gainera, 2012an, nabarmen gutxitu da bere pisu erlatiboa.

2. taula. Aurrekontu programan sartutako jarduera nagusiak eta aurrekontuan jasotako gastua.

	2012		2013	
Gizarte ekimenerako laguntza plana	787.453	% 7,40	787.453	%9,66
Desgaitasunareko laguntza teknikoak	1.300.000	% 12,22	1.300.000	%15,94
Beste batzuk	8.550.668	% 80,38	6.071.178	%74,42
Guztira	10.638.121		8.158.631	

Gastuaren zatirik handiena inbertsioetarako da. Alabaina, generoari buruz daukagun informazioa gizarte ekimenerako laguntza planari eta desgaituentzako laguntza teknikoetarako buruzkoa da.

Helburuak, hartzailak eta programak dituen jarduerak

Helburu orokorra da Departamentuko obren eta inbertsioen lizitazioa, esleipena eta jarraipena egitea. Horrez gain, urtero diru laguntza deialdi bat kudeatzen du arlo diferenteetako elkarreentzat eta desgaituentzako laguntza teknikoetarako inbertsioak.

3. taula. Zerbitzu nagusietan 2011. urtean arreta jaso dutenak:

	GUZTIRA	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Gizarte ekimenerako laguntza plana	7.641	% 50,53	% 49,47
Desgaitasunareko laguntza teknikoak	1.789	% 41,1	% 58,9

Azterketa kuantitatiboa generoaren arabera

Ikus daitekeenez, oreka dago diruz lagundutako elkarten partaide kopuruan. Oreka txikiagoa da sexuen araberako proportzioan, desgaituentzako laguntza teknikoetan.

4. taula. Zerbitzu nagusien estaldura 2011n
(Boluntarioen portzentajea guztizko biztanleriaren gainean)

	712.534 biztanle		
	GUZTIRA	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Gizarte ekimenerako laguntza plana	% 1	% 0,5	% 0,5
Laguntza teknikoak	% 0,25	% 0,11	% 0,14

Ikus daitekeenez, biztanleria osoa hartuta, diruz lagundutako elkarten portzentajea adierazgarria da. Laguntza teknikoak jasotzen dituzten pertsonen kopurua txikiagoa da.

Bestalde, ikus daiteke gizarte ekimenerako laguntza planaren gastua nagusiki desgaituentzako eta gizarteratzeko ekimenen artean banatzen dela.

ARRETA SEKTOREA	EMANDAKO LAGUNTZA	
Desgaitasuna duten pertsonak	454.191	% 49,03
Adinekoak	33.804	% 3,65
Familia	9.050	% 0,98
Haurrak eta gazteak	78.530	% 8,48
Gizarteratzea	337.202	% 36,40
Boluntarioak	3.643	% 0,39
Beste batzuk	9.995	% 1,08
GUZTIZKOAK	926.415	

Gizarteratzea eta indarkeria matxistari eskainitako arreta: **GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA**

Dep. eta €

GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA 03 **2012: 323.215.978 EURO**
2013: 318.020.776 EURO

Izena: Gizarteratzea eta indarkeria matxistari eskainitako arreta
 Kodea: 30
 Generoaren garrantzia: Handia
 AURREKONTUA: 21.819.126

1. taula. Programaren aurrekontua eta azken urteotako portzentajea Departamentuarentzat

	2011	2012	2013	12/11	13/12
GASTUAK EUROTAN	.563.840	23.059.035	21.819.126	-9,8%	-5,5%
DPTUAREN AURREKONTUAREN GAINEKO PORTZENTAJEA	7,7%	257,2%	7,0%	-0,5%	-0,2%

Programa eta €

Programa honek Departamentuaren aurrekontuaren % 7,2 hartzen du. 2012an gutxitu egin da bere pisu erlatiboa enplegu programak gutxitu egin direlako.

2. taula. Aurrekontu programan sartutako jarduera nagusiak eta aurrekontuan jasotako gastua.

	2012	2013	13/12
Gizarteratzeko egoitzak	7.246.884	8.428.015	%16,3
Gizarteratze programak	3.791.917	4.241.864	%11,9
Zentro okupazionalak. Desgaituak	6.269.164	6.269.164	%0,0
Indarkeria matxistari eskainitako arreta	987.899	1.047.506	%6,0
Sarbideak. Prestakuntza	1.065.388		
Beste batzuk	3.728.753	1.832.577	%-50,9
Guztira	23.090.005	21.819.126	%-5,5

Gastuaren zatirik handiena gizarteratzeko egoitzen sare hitzartuari eta mendekoentzako zentro okupazionalari zuzentzen zaio. Ondoren gizarteratzeko programak eta indarkeria matxistari eskainitako arreta daude.

Helburuak, hartzailak eta programak dituen jarduerak

Aurrekontu programa honetan gizarteratzearen arloan Departamentuak dituen jarduera ildo nagusiak jasotzen dira, alde batera utzita aldizkako prestazio ekonomikoak eta inbertsioak. Azpimarratzekoa da arlo horretan sartuta dagoela indarkeria matxistaren aurkako borroka.

Helburu orokorra da gizarte bazterketako egoeran dauden pertsonak bigarren mailako arreta zerbitzuetara bideratzeko prozesuak gauzatzeko profesionalen laguntza eskaintzea. Era berean, helburua izango da indarkeria matxistaren emakume biktimei arreta orokorreko zerbitzuak bermatzea.

Hartzailak: Batetik, gizarte bazterketako egoeran dauden eta gizarteratzeko prozesua egiteko

gaitasuna nahiz motibazioa duten pertsonak. Bestetik, indarkeria matxistaren emakume biktimak.

Programak ondorengo jardueren finantzazioa jasotzen du:

A) Gizarteratzeko egoitzei dagokienez, programak hitzartutako plazen foru sarea finantzatzen du.

B) Indarkeria matxistaren biktimei eskaintako arretari dagokionez:

- c) Indarkeria matxistaren emakume biktimentzako egoitza zentroa.
- Indarkeria matxistaren emakume biktimentzako arreta psikologikoko programa.
- Indarkeria matxistaren emakume biktimentzako laguntza juridikoa.

C) Desgaituentzako zentro okupazionalak.

D) Sarbideak. Enplegua sustatzeko programa.

3. taula. Zerbitzu nagusietan 2011. urtean arreta jaso dutenak:

	GUZTIRA	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Gizarteratzeko egoitzak	1.091	% 81,2	% 18,8
Zentro okupazionalak. Desgaituak	824	%64	% 36
Indarkeria matxistari eskaintako arreta	1.589	% 15	% 85
Sarbideak. Prestakuntza	1.090	% 43	% 57
Beste batzuk	833	% 41	% 59
GUZTIRA	5.427	% 46,8	% 53,2

Ikus daitekeenez, gizonezkoen proportzio handiagoa dago gizarteratzeko egoitzetan eta desgaituentzako zentro okupazionalak. Aldiz, emakumezkoen proportzio handiagoa dago indarkeria matxistari eskaintako arretan eta enplegurako prestakuntza programan (Sarbideak). Ostaturik gabeko gizarteratze programetan ez da sexuaren datua jasotzen.

4. taula. Indarkeria matxistaren biktimentzako arreta zerbitzuetan 2011. urtean artatutakoak:

	GUZTIRA	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Indarkeria matxistaren emakume biktimentzako egoitza zentroa (1).	139	% 27	% 73
Indarkeria matxistaren emakume biktimentzako arreta psikologikoa (2).	1.345	% 15	% 85
Indarkeria matxistaren emakume biktimentzako arreta juridikoa (2).	105	% 5	% 95
GUZTIRA	1.589	% 15	% 85

(1) Indarkeria matxistaren emakume biktimentzako egoitza zentroan emakumeen ardurapean dauden pertsonen ere arreta eskaintzen zaie: seme-alabak eta adineko menpekoak.

(2) Indarkeria matxistaren emakume biktimentzako arreta psikologikoko eta juridikoko programetan gizonezkoen ere, erasotzaile nahiz biktimei, arreta eskaintzen zaie. Ikusi 5. taula.

Azterketa
kuantitatiboa
generoaren
arabera

5. taula. Indarkeria matxistaren emakume biktimenzako arreta psikologikoko programan 2011. urtean artatutakoak:

	GUZTIRA	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Biktimak (% 90)	1.214	% 6	% 94
Erasotzaileak (% 10)	131	% 94	% 6
GUZTIRA	1.345	% 15	% 85

Indarkeria matxistaren emakume biktimenzako arreta zerbitzuetan (egoitza zentroa, arreta psikologikoa eta juridikoa) artatutako bikote homosexuali dagokienez, 2011. urtean ez da halakorik artatu. 2010. urtean, bikote homosexual bateko kide zen emakume biktima bat artatu zen.

6. taula. Zerbitzu nagusien estaldura 2011n
(artatutako pertsonak 100 biztanleko)

	712.534 biztanle		
	GUZTIRA	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Gizarteratzeko egoitzak	0,15	0,12	0,03
Zentro okupazionalak. Desgaituak	0,12	0,08	0,04
Indarkeria matxistari eskainitako arreta	0,22	0,03	0,19
Sarbideak. Prestakuntza	0,15	0,06	0,09
Beste batzuk	0,11	0,04	0,07
GUZTIRA	0,72	0,33	0,39

Ikus daitekeenez, biztanleria osoarekiko estaldura garrantzitsua da, baina kontuan hartu behar da jarduera horiek oso diferenteak direla elkarren artean.

Azterketa edo hausnarketa kualitatiboa

Aurrekontu programa honetan jasotzen diren jarduerak oso diferenteak dira eta lotura gutxi duten beren artean. Azterketak erakusten du emakumezkoek ordezkapen handiagoa dutela gizonezkoen aldean, indarkeria matxistari eskainitako zerbitzuetan. Prestakuntza programetan ere, zirkuitu ofizialetik kanpo, emakumezkoek ordezkapen handiagoa dute.

Aldiz, emakumezkoen presentzia txikiagoa da desgaituentzako zentro okupazionalak eta, batez ere, gizarteratzeko egoitzetan. Ikerketa guztiek agerian uzten dute emakumeek narriadura pertsonal handiko kasuetan erabiltzen dituztela horrelako zerbitzuak. Emakumeek luzaroago mantentzen dute bere autonomia eta premia larriko kasuetan bakarrik jotzen dute horrelako zerbitzuetara.

Aitzitik, emakumezkoak gehiago dira gizarteratze zentroetako langileen artean, gainerako gizarte zerbitzuetan bezalaxe.

Prestazio ekonomikoak: **GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA**

Dep. eta €	GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA 03 2012: 323.215.978 EUROS 2013: 318.020.776 EUROS																																												
Programa eta €	Izena: Prestazio ekonomikoak Kodea: 31 Generoaren garrantzia: Handia Aurrekontua: 66.122.116																																												
	1. taula. Programaren aurrekontua eta azken urteotako portzentajea Departamentuarentzat																																												
		2011	2012	2013	12/11	13/12																																							
	GASTUAK EUROTAN	66.681.095	66.738.269	66.122.116	0,1%	-0,9%																																							
	DPTUAREN AURREKONTUAREN GAINEKO PORTZENTAJEA	20,7 %	20,1 %	208%	-0,6	0,7%																																							
Programa honek, berez, Departamentuaren aurrekontuaren % 20 hartzen du, eta horrek erakusten du prestazio ekonomikoek foru politikaren barruan duten pisua. Eutsi egin zaio bere pisu erlatiboari.																																													
2. taula. Aurrekontu programan sartutako jarduera nagusiak eta aurrekontuan jasotako gastua.																																													
<table border="1" style="width: 100%; border-collapse: collapse;"> <thead> <tr> <th></th> <th style="background-color: #ffffcc;">2012</th> <th></th> <th style="background-color: #ffffcc;">2013</th> <th></th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>Familia inguruan zaintzeko prestazio ekonomikoak.</td> <td style="text-align: center;">37.206.121</td> <td style="text-align: center;">55,75%</td> <td style="text-align: center;">36.819.159</td> <td style="text-align: center;">55,69%</td> </tr> <tr> <td>Kotizatu gabekoen pentsioak</td> <td style="text-align: center;">14.622.721</td> <td style="text-align: center;">21,91%</td> <td style="text-align: center;">14.600.000</td> <td style="text-align: center;">22,09%</td> </tr> <tr> <td>Arreta pertsonalerako prestazio ekonomikoa.</td> <td style="text-align: center;">8.712.963</td> <td style="text-align: center;">13,06%</td> <td style="text-align: center;">9.312.963</td> <td style="text-align: center;">14,09%</td> </tr> <tr> <td>Banakako laguntza ekonomikoak.</td> <td style="text-align: center;">2.111.965</td> <td style="text-align: center;">3,16%</td> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td>Diru sarrerak bermatzeko laguntza</td> <td></td> <td></td> <td style="text-align: center;">2.439.278</td> <td style="text-align: center;">3,69%</td> </tr> <tr> <td>Beste batzuk</td> <td style="text-align: center;">4.084.499</td> <td></td> <td style="text-align: center;">2.950.716</td> <td style="text-align: center;">4,47%</td> </tr> <tr style="background-color: #ffffcc;"> <td>Guztira</td> <td style="text-align: center;">37.206.121</td> <td style="text-align: center;">55,75%</td> <td style="text-align: center;">36.819.159</td> <td style="text-align: center;">55,69%</td> </tr> </tbody> </table>							2012		2013		Familia inguruan zaintzeko prestazio ekonomikoak.	37.206.121	55,75%	36.819.159	55,69%	Kotizatu gabekoen pentsioak	14.622.721	21,91%	14.600.000	22,09%	Arreta pertsonalerako prestazio ekonomikoa.	8.712.963	13,06%	9.312.963	14,09%	Banakako laguntza ekonomikoak.	2.111.965	3,16%			Diru sarrerak bermatzeko laguntza			2.439.278	3,69%	Beste batzuk	4.084.499		2.950.716	4,47%	Guztira	37.206.121	55,75%	36.819.159	55,69%
	2012		2013																																										
Familia inguruan zaintzeko prestazio ekonomikoak.	37.206.121	55,75%	36.819.159	55,69%																																									
Kotizatu gabekoen pentsioak	14.622.721	21,91%	14.600.000	22,09%																																									
Arreta pertsonalerako prestazio ekonomikoa.	8.712.963	13,06%	9.312.963	14,09%																																									
Banakako laguntza ekonomikoak.	2.111.965	3,16%																																											
Diru sarrerak bermatzeko laguntza			2.439.278	3,69%																																									
Beste batzuk	4.084.499		2.950.716	4,47%																																									
Guztira	37.206.121	55,75%	36.819.159	55,69%																																									
Gastuaren zatirik handiena Mendekotasunaren Legearen prestazio ekonomikoei zuzentzen zaie, eta kotizatu gabekoen prestazioak ere presentzia handia dute.																																													
Helburuak, hartzailak eta programak dituen jarduerak	Aurrekontu programa honek Departamentuaren jarduera ildo nagusiak jasotzen ditu babesgabezia ekonomikoaren arloan eta, baita ere, komunitate esparruan, hau da, erakundeek eskainitako arretatik kanpo, artatutako mendekoentzako laguntza ekonomikoaren arloan.																																												
Helburu orokorra da diru baliabiderik ez dutenei diru sarrerak bermatzea eta, horrez gain, adineko mendekoak beren ohiko ingurunean (etxea, familia) jarraitzeko laguntza ekonomikoak ematea.																																													
<u>Hartzailak:</u> Batetik, diru sarrerik ez duten eta babesgabezia ekonomikoko egoeran dauden pertsonak eta, bestetik, komunitatean, emakumeen arretatik kanpo bizi nahi duten mendekoak																																													

eta beren familiak.

Programak ondorengo jardueren finantzazioa jasotzen du:

A) Babesgabezia ekonomikoari dagokionez:

- Gizarte Ongizateko Funtsako pentsioak, gizarteratzeko pentsioak, kotizatu gabekoen pentsioak, banakako laguntza ekonomikoak, gizarteratzeko laguntzak.

B) Mendekotasunaren Legearen prestazio ekonomikoei dagokienez:

- Zerbitzuari lotua
- Familia-inguruneko zaintza
- Zaintza pertsonala

3. taula. Zerbitzu nagusietan 2011. urtean arreta jaso dutenak:

	GUZTIRA	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Familia inguruan zaintzeko prestazio ekonomikoak.	12.260	% 37	% 63
Kotizatu gabekoen pentsioak	3.045	% 40	% 60
Arreta pertsonalerako prestazio ekonomikoa.	1.471	% 28	% 72
Banakako laguntza ekonomikoak.	2.533	% 35	% 65
Beste batzuk	1.232	% 35	% 65
GUZTIRA	20.541	% 36	% 64

Ikus daitekeenez, prestazio ekonomiko guztietan emakumezkoen proportzio handiagoa dago, bai mendekotasunarekin zerikusia dutenetan bai baliabide ekonomikoen gabeziarekin zerikusia dutenetan.

4. taula. Zerbitzu nagusien estaldura 2011n

(Artatutako pertsonen portzentajea Gipuzkoako biztalaria osoaren alderan)

712.534	BIZTANLERIA GUZTIRA		
	GUZT	G	E
Familia inguruan zaintzeko prestazio ekonomikoak.	1,721	1,300	2,124
Kotizatu gabekoen pentsioak	0,427	0,349	0,502
Arreta pertsonalerako prestazio ekonomikoa.	0,206	0,118	0,291
Banakako laguntza ekonomikoak.	0,355	0,254	0,453
GUZTIRA	0,173	0,124	0,220

Ikus daitekeenez, estaldura handiagoa da emakumezkoentzat.

Azterketa
kuantitatiboa
generoaren
arabera

**Azterketa edo
hausnarketa
kualitatiboa**

Azterketak erakusten du emakumezkoek ordezkapen handiagoa dutela gizonezkoen aldean, prestazio ekonomiko guztietan.

Mendekoen kasuan arrazoia sinplea da: emakumezkoak urte gehiago bizi direnez, adinean aurrera egin ahala, piramide demografikoa desorekatu egiten da. Eta zenbat eta urte gehiago, desoreka handiagoa eta mendekotasunaren prebalentzia handiagoa.

Babesgabezia ekonomikoko egoeren kasuan ere emakumezkoen prebalentzia handiagoa da, horrek erakusten du pobrezia "feminizazioa" eta kotizazio sistemako prestazioen estaldura txikiagoa emakumezkoen artean.

Bestalde, azpimarratu behar da etxeetan mendeko pertsoez arduratzen diren zaintzaileen "feminizazioa".

Haurrak eta nerabeak: GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA

Dep. eta €

GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA 03
2012: 323.104.849 EURO
2013: 318.020.776 EURO

Izena: Haurrak eta nerabeak
 Kodea: 32
 Generoaren garrantzia: Handia
 Aurrekontua: 39.072.174

1. taula. Programaren aurrekontua eta azken urteotako portzentajea Departamentuarentzat

	2011	2012	2013	12/11	13/12
GASTUAK EUROTAN	35.320.203	38.006.685	39.072.174	7,6%	2,8%
DPTUAREN AURREKONTUAREN GAINEKO PORTZENTAJEA	10,6%	11,8%	12,3%	1,2%	0,5%

Programa honek Departamentuaren aurrekontuaren % 11,8 hartzen du, eta horrek erakusten du gaiak duen garrantzia. Gainera, 2012an, nabarmen handitu da bere pisu erlatiboa.

Programa eta €

2. taula. Aurrekontu programan sartutako jarduera nagusiak eta aurrekontuan jasotako gastua.

	2012	2013	13/12
Balorazioa eta orientazioa	1.103.131	1.429.608	%3,66
Familian esku hartzea	4.302.813	3.613.202	%9,25
Familia harrera	1.553.550	1.962.100	%5,03
Adigabeenganako abusuen tratamendua	1.077.815	797.282	%2,05
Egoitza harrera	23.104.948	23.594.092	%60,39
Laguntza ekonomikoak	3.150.000	3.150.000	%8,07
Beste batzuk	3.714.428	4.525.890	%11,59
Guztira	38.006.685	39.072.174	

Gastuaren zatirik handiena, batik bat, egoitza harrerako sareari zuzentzen zaio; era berean, adierazgarria da familietan esku hartzeko saioretan eta laguntza ekonomikoetan egindako gastua.

Helburuak, hartzaileak eta programak dituen jarduerak

Aurrekontu programa honetan adingabeen arloan Departamentuak dituen jarduera ildo nagusiak jasotzen dira, inbertsioak alde batera utzita. Departamentuaren aurrekontuaren zati handi bat hartzen duen programa da.

Helburu orokorra da babesgabezia egoeran dauden adingabeei arreta egokia ematea, egoitza harreraren bidez (ohiko ingurunetik ateratzea beharrezkoa denean) nahiz etxean bertan esku hartuz, egoerak hala eskatzen duenean.

Hartzaileak: Babesgabezia egoeran dauden adingabeak eta beren familiak. Gipuzkoan guztira 120.607 adingabe daude.

Programak ondorengo jardueren finantzazioa jasotzen du:

A) Egoitza harrerari dagokionez, programak finantziatzen du babesgabezia egoeran dauden adingabeentzako zaintza plazen foru sarea.

- Zaintza zentroak eta larrialdiko harrera zentroak

B) Familia ingurunean arreta eskaintzeko laguntzari dagokionez:

- Familian esku hartzeko eta familia harrerako programen finantziazioa.

Bukatzeko, hemen kokatzen da haurren babesgabeziaren balorazioa. Balorazioa funtsezkoa da adingabeen diagnostikoa eta orientazioa egiteko, indarrean dagoen legedia betez.

3. taula. Zerbitzu nagusietan 2011. urtean arreta jaso dutenak:

	GUZTIRA	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Adingabeak guztira	120.607	% 51,28	% 48,72
Balorazio eta orientazio zerbitzua	240	% 64,16	% 35,84
Familian esku hartzeko programak	701	% 53,06	% 46,94
Familia harrera	307	% 56,03	% 43,97
Egoitza harrera	275	% 67,64	% 32,36
Laguntza ekonomikoak	161	% 62,5	% 37,5
Adigabeenganako abusuen tratamendua	134	% 56,7	% 43,3
GUZTIRA	1.818	% 58,3	% 41,7

Ikus daitekeenez, mutilen proportzio handiagoa dago zerbitzu guztietan, oszilazioen batekin.

4. taula. Zerbitzu nagusien estaldura 2011n (artatutakoak, 18 urtez beherako 1.000 biztanleko)

120.607 biztanle	GUZTIRA	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Balorazio eta orientazio zerbitzua	1,99	1,28	0,71
Familian esku hartzeko programak	5,81	3,08	2,73
Familia harrera	2,55	1,43	1,12
Egoitza harrera	2,28	1,54	0,74
Laguntza ekonomikoak	1,33	0,83	0,50
Adigabeenganako abusuen tratamendua	1,11	0,63	0,48
GUZTIRA	15,07	8,79	6,29

Adingabeen guztizkoaren gaineko eragina baxua da, baina Europako altuenetako bat da (Iturria: SIIS).

Azterketa
kuantitatiboa
generoaren
arabera

Azterketa edo
hausnarketa
kualitatiboa

Azterketak erakusten du mutilek nolabaiteko gainordeztzaritza dutela. Horren arrazoa izan daiteke bakarrik dauden atzerritar adingabeen presentzia, ia gehienak mutilak baitira. Aitzitik, emakumezkoak gehiengo dira adingabeentzako baliabideetako langileen artean, gainerako gizarte zerbitzuetan bezalaxe.

Garapenerako kooperazioa: GIZARTE POLITIKAREN DEPARTAMENTUA

DEPARTAMENTUA	GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA 03
ETA €	2012: 323.215.978 € 2013: 318.020.776 €

Izena: Garapenerako lankidetzak
Kodea: 40
Generoaren garrantzia: Handia
Aurrekontua: 3.848.121 €

**1. taula. Programaren aurrekontua eta hartzen duen portzentajea
Departamentuan azken urteetan**

ETA Programa €	2011	2012	2013	12/11	13/12
GASTUAK EUROTAN	4.361.757	4.089.649	3.848.121	%-6,6	%-5,9
DEPARTAMENTUKO AURREKONTUAREN GAINEKO PORTZENTAJEA	1,23%	1,27%	%1,21	%0,04	%-0,06

Aurrekontu programa honek Departamentuak kooperazio politika transformatzaile bat sustatzeko jardura ildo nagusiak biltzen ditu. Hauek dira haien helburuak:

Giza garapen iraunkorra sustatzea, herritartasun unibertsalaren kontzeptuan oinarritua, pobreziarekin amaitzeko egiturazko zioei aurre eginda (zio politikoak, sozialak, ingurumenekoak, generokoak), eraldatu beharreko pertsonen lagunduta beste garapen aukera batzuk abiaraziz.

Nori zuzentzen zaion:

Helburua, hartzaileak eta programak dituen jarduketak

Aurrekontu programako jarduketa nagusiak eta aurrekontuko gastua.

	2012	2013	13/12
Proiektu berriak hegoaldeko herri txiroetan	2.406.737€	2.264.599	-5,9%
Giza eraldaketako eta garapenerako hezkuntzako proiektu berriak	590.000€	555.156	-5,9%
Ekimen solte berriak	176.000€	165.606	-5,9%
Ekintza humanitarioak	200.000€	188.188	-5,9%
Hitz emandako proiektuen jarraipena	716.912 €	674.572	-5,9%
Guztira	4.089.649€	3.848.121	-5,9%

Garapenerako nazioarteko kooperazioko zuzendaritzak aurrekontuaren zatirik handiena **diru laguntzen deialdien** bidez gauzatzen du; 2012an, **3.372.737 euro**. Deialdia lau eranskinetan dago banatuta dagozkien aurrekontuekin. Azterketarako, 3 lehenak bakarrik hartuko dira kontuan:

Garapenerako kooperazioko diru laguntzen deialdia 2012		
		Zenbatekoa
I. eranskina	Proiektuak hegoaldeko herri txiroetan	2.406.737,00
II. eranskina	Giza eraldaketako eta garapenerako hezkuntzako proiektuak	590.000,00
III. Eranskina	Ekimen solteen laguntzak	176.000,00
IV. eranskina	Ekintza humanitarioen laguntzak	200.000,00
GUZTIRA		3.372.737,00

Hurrengo taulan zehazten dira eranskin bakoitzeko eskaera kopurua, zenbatekoak eta genero ekitatearekin zerikusi zuzena duten onartutako proiektuen kopurua. Hala ere, eranskin bakoitzean **genero ekitatea zeharkako lerro bezala ezarrita dago, eta ez betetzeak kanporatzea dakar**. I. eta II. eranskinetan, genero zeharkakotasunak 9/100 puntuazio gehienekoa du; III. eranskinean, berriz, 15/100. Orobat, 2 puntu ematen zaizkio generoko erakunde politika duen erakunde eskatzaileari, eta beste 2 baldin eta kontraparteak badu.

Analisi
kuantitat
iboa

	I. eranskina	II. eranskina	III. Eranskina	Guztira
Aurkeztutako proiektuak	60	31	29	120
Onartutako proiektuak	15	8	8	31
Onartuak; emakumeak edo emakume elkarteak dira poblazio-subjektua, edo helburua jabetasuna eta desberdintasunak ezabatzea da.	6	3	2	11
Eskatutako zenbatekoak	8.157.795,97	2.153.230,12	616.158,75	10.927.184,84
Onartutako zenbatekoak	2.406.737,00	590.000,00	176.000,00	3.172.737,00
Onartutako zenbatekoak emakumeak	848.767,69	206.219,95	47.934,81	1.102.922,45

Ondoren, zehazten dira zein izan diren genero ekitatearekin harreman zuzena duten onartutako proiektuak, eranskin bakoitzeko:

I. eranskina

Erakunde eskatzailea	Proiektuaren izena	Herrialdea	Emandako zenbatekoa	Kontrapartea
Mugen Gaietik	Ekonomia solidarioa sustatuz jabetasuna eta autonomia handiagoko emakumeentzat	EL SALVADOR	147.081,88	Colectiva de mujeres para el desarrollo local.

Setem Hego Haizea	K'inal Antsetik emakume indigenak prestatzeko eta gaitzeko zentroa sendotzea. Chiapas.	MEXIKO	136.008,47	
Mugarik Gabe	Medellingo emakumeen aurkako indarkeria sexualak prebenitzeko eskola giroak.	KOLONBIA	149.090,64	Corporación para la vida mujeres que crean
Alboan	Nagapattinam, Tamil Nadu, distrituko emakume alargun edota bakarrik utzitakoen mugimendua. India. Kalangari. II Fasea.	INDIA	125.222,24	KALANGARAI
Fundación Intered	Leoneko emakumeen sustapena eta eskubideen defentsa, Guanajuato II Fasea.	MEXIKO	149.900,04	Centro de Derechos Humanos Victoria Díez A.C.
Medicus Mundi Gipuzkoa	Orellana probintziako emakume indigenen eskubide sexualen, ugalketako, ekonomiko eta politikoen aldarrikapena.	EKUADOR	141.464,42	Fundación desafío/Kallary kausay

II. eranskina:

Erakunde eskatzailea	Proiektuaren izena	Emandako zenbatekoa
Bidez Bide Gizarte sustapenerako kultur arteko elkartea	Ipar-hego begiradak: zaintza globalizatuak	80.000,00
Haurralde Fundazioa	Garapen sustatzaileak diren emakumeak: jabeak eta lidergo ekonomikoa	78.919,34
Mundubat Fundazioa	Krisiaren aurreko aukera feministak	47.300,61

III. eranskina:

Erakunde eskatzailea	Proiektuaren izena	Herrialdea	Emandako zenbatekoa	Kontrapartea
PLAZANDREOK	Nikaraguako emakumeen herritar partaidetza indartzea	NIKARAGUA	23.934,81	Programa Regional Feminista La Corriente
PHAGMA DRÖLMA ELKARTE	Emakumeak, garapena eta ingurumena: PHUNTSOKLING I	TIBET	24.000,00	Tibetan Womens Association

Zuzendaritzak sinatutako kooperazio hitzarmen zuzenak 5 izan dira 2012an. Horietako bat Brasilgo Sempre Viva elkarte feministarekin, zeinak, une honetan, Emakumeen Mundu Martxaren nazioarteko idazkaritza baitu. Hala ere, gainerako hitzarmenei eskatzen zaie generoa jarduera guztietan zeharkatzea.

Onartutako hitzarmenak	Kopurua
Emakumeen Mundu Martxa	115.000,00
Vía Campesina	115.000,00
Euskal Fondoak	115.000,00
ONGD koordinadora	30.000,00
Sahara koordinazio unitatea	30.000,00

Azkenik, kooperazioko zuzendaritza, Foru Aldundiko Berdintasuneko Zuzendaritzarekin eta Donostiako Udaleko berdintasun eta kooperazio atalekin, jardunaldi batzuk ari da antolatzen; "Feminismoak eta estrategia globalak indarkeria matxistaren aurka", urrian izango direnak 20.000 euroko kostuarekin.

Jardueren ezaugarriak kontuan hartu behar dira, onuradunen azken kontrola zaila baita egiten, kudeatzen duten pertsonen segregazioarekin eta kontzesio baremoan irizpide horrekin lortutako puntuazioaren azterketarekin hasiko gara.

Genero eragina oso altua da ekintza hauetan, ikuspuntua garapen motaren ekitate mailaren arabera baitago.

Deialdi honetatik aurrera, genero eraginaren azterketa kualitatiboa sartuko da programaren kudeaketaren analisiaren alderdien artean.

**Azterket
a edo
hausnark
eta
kualitati
boa**